



2024SPLE0008
8.bilera: OHIKOA 2024/06/27

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/08

EGUNA: 2024/06/27

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea. (Telematikoki)

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Bertaratzea desenkusatzan du:

Antxoka Elorza Altuna, EH Bildu udal taldea.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurari dagokion akta onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2024ko maiatzaren 30ean eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, eta inork ez zuen ezer adierazi.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Aritz Larrañagak azaldu zuen Dekretuetan agertzen ziren hainbat langileen kontratazioaren harira zituen zalantzak argitzeko nahia, hain zuzen, Dekretu hauei buruzkoak:

- 2024/268 Dekretua: «*Turismo bulegorako langile bat udaldirako kontratatzea. (M.J.I.G.)*» Lan-poltsatik egin ote den edo nola egin den kontratazio hori galdetu zuen.

Idazkariak erantzun zuen lan-poltsako inor ez zegoela lanerako prest eta Lanbideren bitartez egin zela lan deialdia. Debegesako teknikariak eta Turismoko dinamizatzailleak egin zituztela elkarrizketak eta, horien ondoren, kontratazio proposamena.

- 2024/282 Dekretua «*Amaitutzat jotzea harrera zerbitzuko langilearen ordezkapena (S.E.C) (M.P.M.M.)*» eta 309/2024 Dekretua «*Harrera zerbitzurako langile baten izendapena lan pilaketagatik. M.P.M.M.*» Bi Dekretu horiek lotura dutela, eta lehena izango dela bajaran zegoen langilea bueltatu delako, baina bigarrenaren zergatiaren buruz galdetu zuen.

Alkateak erantzun zuen, alde batetik aurten harrera bulegoko langile bat jubilatuko dela eta, abuztuaren 14 aurrera, lehenik oporrak eta gero jubilazioa, lana amaituko duela; eta bestetik, oporrak direla-eta harrerako zerbitzua bermatzeko aldi baterako ordezkapenak egiten dituzten Hirigintzako eta Idazkaritzako administrariekin nahiko ez zela, eta zerbitzua bermatze aldera berriro ere kontratatu zela baja ordezkatzan ari zen pertsona bera.

- 2024/293 Dekretua «*Hondartzako toldoen arduraduna kontratatzea, lan-kontratuaren bitartez.*» eta 2024/293 Dekretua «*Hondartzako tolderoak kontratatzea, lan-kontratuaren bitartez.*» horiek ere lotura dutela, eta ea zergatik dauden bi dekretu galdetu zuen.

Alkateak erantzun zuen tolderoak enplegu planaren Gizarte Zerbitzuak proposatutako pertsonak bidez kontratatu zirela, eta, arduraduna, berriz, Lanbidera eginiko deialdi baten bidez. Programa desberdinak zirenez, horregatik egin zirela bi dekretuen bitartez.

- 2024/307 Dekretua «*Udaltzain baten izendapena, lan pilaketagatik. N.M.Q.*» eta 2024/310 Dekretua «*Udaltzain baten izendapena, hutsik geratu den lanpostua betetzeko. I.V.U.*» Suposatzen zuela lehena urtero udan egiten den errefortzuko kontratazioa izango dela, eta, bigarrena, jubilatutako udaltzainaren jubilazioaren ondorioa izango dela, baina horrela ote zen ziurtatu nahi zuela.

Alkateak erantzun zuen, baietz horrela izan zela, lehena urtero egiten den errefortzua zela, eta bestea, abuztuan amaitzen zuen udaltzain bati eskaini zitzaiona jubilatutako udaltzainaren lanpostua betetzeko interinidadea eta, horiez gain, eskatuta daudela beste hiru udaltzain egon diren mugimenduak eta uztailean eta abuztuan amaitzen diren izendapenak bete ahal izateko.

- Amaitzeko, Dekretuen zerrendan agertzen ez badira ere, sarren bitartez ezagutu zutela energia kudeaketarako eta klima aldaketarako teknikaria eta kirol saileko dinamizatzaillea kontratatzeko



2024SPLE0008
8.bilera: OHIKOA 2024/06/27

asmao, eta horren harira informazioa eskatu zuen.

Alkateak erantzun zuen kontratazio horiek lehen lanbide esperientzia izateko programaren bidez egingo direla.

Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Onartzea, hala badagokio, baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako Soraluzen dagoen eskualdeko etxebizitzaren hitzarmena berritzea.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion Gizarte Politika eta Bertintasun Batzordeak, 2024ko maiatzaren 28an eginiko bileran, aho batez emandako irizpena, «Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar eta Debako Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapekoa, Soraluzen dagoen etxebizitza erabiltzeko» beste lau urtetarako luzatzeko aldekoa.

Alkateak galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira, eta inork ez zuen ezer adierazi.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen beste lau urtetarako luzatzea «Soraluze, Elgoibar, Mutriku, Mendaro, Eibar eta Debako Udalen arteko lankidetzaren hitzarmena, baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapekoa, Soraluzen dagoen etxebizitza erabiltzeko».

4.- Onartzea, hala badagokio, Amilaitz elkarteak aurkeztutako mozioa: Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta horien erabilera arautzen duen dekretuari buruzkoa; edo EAJ/PNV-k aurkeztutako mozio alternatiboa.

Gilen Garciak azaldu zuen Amilaitz elkarteak aurkeztutako mozioa eta EAJ/PNV-k aurkeztutako mozio alternatiboa bata bestearen jarraian irakurritz gero, ez dagoela eztabaidarako aukerarik eta, horregatik, galdetu zuen zer prozedura erabili behar zen gaia hau lantzeko.

Alkateak erantzun zion, aurretik Amilaitz elkarteak aurkeztutako mozioa irakurriko zela, eta dagokion eztabaida ondoren bozkatu egingo zela, eta onartzen ez bazan, orduan, irakurri, eztabaidatu eta bozkatu egingo zela EAJ/PNV-k aurkeztutako mozio alternatiboa, hau da lehena onartuz gero, mozio alternatiboa atzera botatzen zela ulertuko zela.

Ondoren, alkateak, Amilaitz elkarteak aurkeztutako mozioa irakurri zuen:

«Debako Udalean aurkezten den MOZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta horien erabilera arautzen duen dekretuari buruzkoa.

Euskal Herriak lotura estua du itsasoarekin. Mendeetan zehar, itsasoari begira eta itsasora emana bizi izan da. Harreman hau ez da ogibide baten sortze eta garapenera bakarrik mugatzen; aitzitik, euskal gizarte osoaren bizimodua baldintzatu du, baita beste herrialde batzuekiko harremanak ere. Bestela esanda, euskaldunok aspaldidanik egin dugu itsasoa lantoki, baina itsasoari lotutako jarduera ez da inoiz sektore ekonomiko hutsa izatera mugatu. Balio kulturala izan da, euskaldunon kultura-ondarearen gordailua. Eta portuek eta kaiak kultur transmisiorako espazio gisa bete duten funtzioa agerikoa da, hauetan iraun baitute itsas munduko tradizio eta ohiturek.

Azken urteotan, ordea, agerikoa da euskal kostaldeko eta, batez ere, portuetako errealitatea erabat aldatu dela. Arrazoiak askotarikoak dira, baina horien artean dago kirol-portuak eta kirol-nabigazioa sustatzeko aurrera eraman den egitasmoa. Aisialdirako ontzi flota handia, gorantz doan eskaera amaigabea Horrela, arrantza-portu izan ziren asko kirol-portu bihurtu dira, eta errealitatea aldatzearekin, arazo eta desoreka berriak sortu dira. Horren adibide garbia amarralekuen auzia da.

Ekonomiako, Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko 5330 Aginduak laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautu zituen, baita haren aplikazio eremua ere. Data horretatik aurrera euskal kostaldeko hainbat portutako amarralekuen emakida prozedurak ireki ziren, besteak beste, Plentzian edo Donostian.

2017ko urriaren 19ko aginduaren helburua “arauz kanpoko” egoera bat erregularizatzea eta eguneratzea eta amarralekuak erabiltzeko baimen-prozedurak arautzea bazen ere, hura ezartzen hasteak kezka eta ezinegona sortu zuen kostaldeko herri guztietan. Horren adibide dira abian jarritako salaketa judizialak, hala nola Euskadiko Kirol Portuen zuzendariaren aurka Donostiako epaitegiak 2022ko urriaren 29an onartutako kereila, edo toki-erakundeek herritarren aldetik jaso dituzten esku-hartze eta laguntza eskaera ugariak.

Kezka eta ezinegon hori, gehienbat, amarralekuak esleitzeko 5330 Aginduaren 14. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideek eragin zuten. Zuzenago esanda, irizpideen zehaztugabetasunak eta horiek behar ez bezala aplikatzeak. Aipatu artikulua araberan, amarralekuak esleitzeko “aintzat hartuko dira ontziaren neurri zehatzak (luzera, zabalera eta sakonera), eskainitako amarralekuekin alderatzeko”; gainera, “lehentasuna emango zaie amarralekuak eskatzeko unean ontzia baduten eskatzaileei eta amarralekuko neurrietara hobekien egokitzen diren ontziei, betiere ontziaren luzerak eta zabalera aukera ematen badute atrakatzeko manioobra egokiak egiteko”; eta eskatzaileen artean “berdinketa egonez gero, notario aurrean zozketa egingo da”. Bada, agindua ezarri den portuetako amarratzaileek salatu dutenez, oinarrietan jaso gabeko irizpideak aplikatu dira, plazarik gabe geratu diren ontziek baino aprobetxamendu hobea ez duten plazak esleitu dira, edo berdinketa-egoera batzuk ez dira notarioaren aurrean ebatzi.

Irregularitasun horiek guztiek ondorio judizialak izan dituzte. 2023ko otsailean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiak bertan behera utzi zuen EKP erakundeak 2021ean Donostiako kaian egindako amarralekuen banaketa, eta, 2023ko apirilean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiak baliogabetu egin zuen Plentziako amarralekuen deialdia ebatzen zuen erabakia.

Bestalde, aginduak ez du antzintasuna irizpidetzat hartzen, eta, beraz, ez ditu babesten portuek historikoki bete duten funtzio sozialaren jarraipena bermatzen duten erabiltzaileak, hala nola erretiroa hartu ondoren plaza bat ziurtatua zuten arrantzaleak.

A Marralekuak berritzeko prozesuak euskal portuetan sortutako gatazka arau berria egin aurreko elkarrizketaren bidez saihestu zitekeen. Eta horixe da, hain zuzen ere, amarratzaileen elkarteek eskatzen dutena, elkarrizketa. Esan bezala, gure portuen errealitatea aldatu egin da, eta gaur egun inor gutxik ezagutzen du portuetako egoera amarratzaileek beraiek baino hobeto, gehienak eguneroko erabiltzaileak baitira. Elkarte horietako askok ibilbide luzea dute portuen kudeaketan, hainbatetan amarralekuak ere kudeatu dituztelarik. Hala ere, arau berria osatzeko prozesuan ez dira aintzat hartuak izan.

Hori guztia kontuan hartuta, Debako Udaltzako ondorengoa eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

1.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua berrikusi eta egokitze izapideak martxan jartzea, sortu den gatazkaren iturburuan dauden irizpideak zuzenduz.



2024SPLE0008
8.bilera: OHIKOA 2024/06/27

2.- Abian dauden edo aurreikusiak dauden amarralekuen esleipen-prozesuak behin-behinean gelditzea eta kaltetunekin, hots, amarratzaileen elkarteekin elkarriketa hastea, egoera bideratzeko.

3.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua berrikusteko prozesua gardentasunean eta partaidetzan oinarritzea, eta EKP/Eusko Gobernuak portuak kokatzen diren udalerriekin elkarlanean garatzea, horretarako tokian tokiko Portuko Udal Batzordeak sortuz, Ekainaren 28ko 2/2018 Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren legearen I. kapituluko 4. artikuluan xehatuta dagoen bezala.

4.- 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua egokitzeko lanketan honako irizpideak aintzat hartzea:

* Herri eta portu bakoitzaren egoera desberdina da, eta, beraz, arauak tokian tokiko errealitatea aintzat hartu eta horretara egokitzeko aukera eskaini behar du, betiere herrien eta herritarren artean bereizkeriarik sortzen ez bada.

* Amarralekuak esleitzeko prozeduran antzinatasuna irizpide bat izatea eta itsas kostaldeko ondare materiala eta inmateriala berreskuratzen edo kontserbatzen duten ontziei lehentasuna ematea.

5.- Mozio honen onarpena Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.

Deban, 2024ko ekainaren 27an.»

Ondoren, alkateak Amilaitzek aurkeztutako mozioaren aurkako bozka emateko argudioak irakurri zituen:

«Ekarri duzuen mozioa 2022ko maiatzean EH Bilduk kostaldeko hainbat udaletan eta baita legebiltzarrean ere aurkeztutako mozioaren antzekoa da.

Dagoeneko izapidetuta dagoen mozio baten erreplika da, eta mozio haren edukiak lantzen ari dira, mozio hori aurkeztu duten elkarteek dakiten bezala; izan ere, behin eta berriz, hala azaldu izan diete administrazioaren aldetik egin ohi dituzten koordinazio-bilera askotan.

Gineara, bere arrazoen azalpenean zehazgabetasun asko biltzen dituen mozioa da, aipamen edo gauza batzuk alde batera uzten dituen eta beste batzuetan errealitatearekin guztiz bat ez datorrena.

Mozio honetan egiten den eskaeraren bati dilazio asmo susmagarri samar bat atzematen diogu, eta beste batzuk nekez gauzatu edo bete daitezken eskariak dira.

Beraz, ezin dugu mozioa aurkeztu den bezala onartu.

Beraz,

- Bat gatoz erabiltzaileen kezkaekin, aisialdirako ontzientzako amarralekuen eskaria gero eta handiagoa delako.

Hala ere, jakin badakigu araudia aldatzeak ez duela arazoa konponduko, benetako arazoa, izatekotan, amarralekuen eskariaren eta eskaintzaren arteko desorekari baitagokio. Izan ere, gurea bezalako herrialde batean, dituen orografia eta itsas baldintzak izanik, kasu batzuetan, nahiko zaila da desoreka hori konpontzea. Hala ere, badakigu ahalegin hori ere egiten ari dela.

Baliteke batzuk erosoago sentitzea esleipen algoritmo batek egin beharrean zozketa batek egitea, edo nahiago izatea oinarrietan norberarena den baldintza bati edo norberarena den zerbaiti lehentasuna ematea... baina, ez gaitzen engaina, eskaintzak eskariaren hirukoiztu egiten dionean, eztabaida izan den bi portu bakarretan gertatu den bezala, hirutik bi plazarik gabe geratuko dira aurrerantzean ere, eta deialdien araudia edo oinarriak 2txarrak” izango dira, berriro ere, kanpoan geratzen direnentzat; eta bizi dugun politika edo administrazioa judizializatzeko giro batean prozedurak judizializatzera eramango gaitu aurrerantzean ere.

- Era berean, bat gatoz araudia berrikusteko beharrarekin, araudia hobetu eta errealitate berrira egokitzeko beharrarekin, alegia. Baina ez horretarako mozioan ezartzen diren irizpideekin. Araudiak legezkoa izateaz gain eginkaria izan behar duelako.

Horregatik aurkezten dugu mozio alternatiboa.»

Gilen Garciak adierazi zuen horrelako irakurketa politikoa edukita harritzen zaiola lehenago horren inguruan hitz egin ez izana, baina, betiko kontua zela, egiteko moduak direla, eta aurreko agintaldian horrelako kezka bat agertzen zenean, eragile eta alderdiekin artean hitz egiten zela, baina, oraingoan, elkarrizketarik egon ezenez, ez zela aukerarik egon testu bat adosteko, eta, horrela kudeatzea denbora galtzea iruditzen zitzaioela, bi testu zeudela, baina ez zela egon inolako dialogorik. Horrez gain, hirugarren alderdiaren postura ezagutu nahiko zuela.

Isidro Aristik adierazi zuen bat egiten duela alkateak emandako argudioekin, eta alkateak zehaztu zuen berak irakurritako argudioak ez zirela EAJ alderdiarenak bakarrik, baizik eta udal gobernuaren argudioak zirela.

Bozketa egin ondoren, aldeko bost (5) botoekin eta aurkako zazpi (7) botoekin, Udalbatzak ez zuen onartu Amilaitz elkarteak aurkeztutako mozioa: Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta horien erabilera arautzen duen dekretuari buruzkoa.

Ondoren, alkateak EAJk aurkeztutako mozio alternatiboa irakurri zuen:

«Euskadiko portu-tradizio luze eta finkatuak eragin ekonomiko eta sozial handia izan du gure kostaldeko herrien garapenean, arrantza-, merkataritza- eta industria-sektoreen bultzadari esker; eta, horrekin batera, Euskadiko aisialdiko jarduera nautikoaren hazkundeari eta euskal kostaldearen garapen turistikoari esker.

Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela portuen arloan, betiere interes orokorrekotzat sailkatuta ez badaude.

Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak urte asko daramatza arlo hori behar bezala kudeatzen, eta agerian daude emaitzak.

Duela hogeitau urte, aisialdiko nautikari dagokionez, Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Agindua eman zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan eta portu-instalazioetan profesional ez diren aisia-ontzien titularrei amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen duena, arauz kanpoko egoera bat erregularizatzeko.

Hala ere, agindu hori aplikatu zenetik hamarkada bat baino gehiago igaro zenean, araua eguneratu beharra zegoela ikusi zen, kirol-portuetako egoera berrietara egokitzeko. Horregatik, arau-xedapen berri bat eman zen, amarralekuak emateko prozedura arautzen duena; Agindua, 2017ko urriaren 19koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, laketontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko emakidak emateko prozedura eta araubidea arautzen dituena. Xedapen horrek, egin eta onartzeko, legez ezarritako izapide guztiak jarraitu zituen, informazio publikoa eta alegazioen izapidea barne.

Ildo horretan, 2018. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legea onartu zen, eta lege horren arau-garapenean aurrera egin da azken



2024SPLE0008
8.bilera: OHIKOA 2024/06/27

legegintzaldi honetan. Lege horretan, besteak beste, Portuko Udal Kontseiluak sortu dira, eta horien izapidea azken fasean dago, behin betiko onartzeke eta aldizkarian argitaratzeko; beraz, laster gauzatuko dira.

Agindu hori aplikatu zenetik zazpi urte igaro dira, eta aisialdiko nautikak azken urteotan izan duen bilakaera azkarra ikusita (ondorioz, arazo eta errealitate berriak agertu dira), egiaztatu da araua eguneratu beharra dagoela, egoera berrietara egokitzeko.

Hala adierazi du Eusko Jaurlaritzak aurreko legegintzaldian, eta badakigu egokitzapen hori izapidetzen ari dela.»

Bozketa egin ondoren, aldeko zazpi (7) botoekin eta aurkako bost (5) botoekin, Udalbatzak onartu zuen EAJk aurkeztutako mozio alternatiboa, Euskal Autonomia Erkidegoko portuetan ontzien amarralekuak emateko prozedura eta horien erabilera arautzen duen dekretuari buruzkoa.

5.- Onartzea, LGTBI kolektiboaren aldeko adierazpen Instituzionala.

Alkateak adierazpen instituzionala irakurri zuen:

«Ekainaren 28an, LGTBI kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean, aniztasunetik, eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, kolektibo honen eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatuz. Egun hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogorarazteko ere bada.

Pertsona guztien berdintasunean aurrerapen ukaezinak egin diren arren, oraindik diskurtso LGTBIfobikoen albiste kezagarriak sortzen dira, lortutako lorpenetan atzerakada bat dakartenak. Diskurtso horiek, askotan ezjakintasunak eta gorrotoak elikatzen dituztenak, lortutako aurrerapenak desagerraraztea eta diskriminazioa iraunaraztea bilatzen dute. Funtsezkoa da gizarte gisa erne eta tinko egotea eskuratutako eskubideen defentsan; hala, sexu- eta genero-aniztasunarekiko duintasuna eta errespetua kaltetzeko edozein ahalegin baztertuko dugu.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikusgarritasunak gizarte gisa aurrera egiteko aukera ematen digu. Aniztasun hori aitortzea eta ospatzea, justizia-ekintza izateaz gain, komunitate gisa aberasten gaituen aukera ere bada. Ez dugu inolako atzerapausorik onartuko kolektibo osoko ehunka lagunen ahaleginari esker lortutako eskubideetan. Irabazitako eskubide bakoitza gizarte bidezkoago eta gizatiarrago baterako urratsa da.

Badakigu sexu- eta genero-aniztasunaren onarpen soziala gero eta handiagoa dela, neurri batean euskal gizarte osoaren elkarlanari esker. Lan hori funtsezkoa izan da armairurik gabe, loturarik gabe, aurreiritzirik gabe eta estigmatik gabe bizi ahal izateko, eta komunitatea eraikitzeke. Babes-keinu bakoitzak, ikusarazte-ekintza bakoitzak, mugimendu hori indartzen eta aurrera jarraitzeko gure erabakia berresten laguntzen du.

Horrenbestez, sentsibilizazio eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu leihoetatik eta balkoietatik kolore anitzeko banderak zintzilikatuz. Keinu txiki baina esanguratsu hori elkartasunaren eta babesaren erakusgarri da, eta agerian uzten du gaur aniztasunaren aldeko borroka eguna dela. Astintzen dagoen bandera bakoitza erresistentziaren eta itxaropenaren sinboloa da, atzera egiteko prest ez gaudela dioen adierazpena, hain zuzen.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu LGBTBI eskubideen aldeko borroka guztion borroka dela. Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izango garen etorkizun baten alde lan eginez. Hau honela, ekainaren 28 honetan LGBTBIQ+ kolektiboaren eskubideak eta herritarrok aske izateko eta bizitzeko aldarria egin nahi du Debako Udalak eta horretarako jendarte justu, parekide eta eraikitzaileago bat bultzatzen jarraituko du.»

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen LGBTBI kolektiboaren aldeko adierazpen Instituzionala.

Alkateak adierazi zuen ekainaren 28an kolera anitzeko bandera jarriko zela udaletxearen balkoian.

6.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik.

Ez ziren egon ez eskaririk ezta galderarik ere.

Bilkura amaitu aurretik alkateak adierazi zuen EH Bildu taldeak sareetan eta komunikabideetan argitaratutakoaren harira udal gobernuaren erantzuna azaldu nahi zuela.

Gilen Garciak galdetu zuen ea zuzena ote zen eskari eta galderen txandan horrelakoak egitea, eta idazkariak erantzun zuen eskari eta galderen txandan ezin den egin gauza bakarra dela erabakiak hartzea.

Alkateak bera azalpena irakurri zuen:

«Debako EHBildu taldeak sareetan eta komunikabideetan udal gobernuaren hondartzen uda-denboraldiaren kudeaketa txarra dela eta egindako adierazpenen aurrean, honakoa adierazi nahi dugu.

Udal arduradun politikoaren kudeaketa kaskarra behin eta berriz aipatzen du EH Bildu taldeak, eta horretarako erabiltzen dituen argudioak ez dira inondik ere egia eta gertatutakoaren isla.

Udal gobernuak uda-denboraldia behar bezala abiarazteko, bi zerbitzu desberdin jarri behar izan ditu martxan. Toldoen zerbitzua, batetik eta sorosleena bestetik. Biek kudeaketa lan sakona eskatu dute eta horietan indarra urritik aurrera jarri dela jakin izan du unez une EH Bildu taldeak.

Kontrakoa askotan adierazten duen arren, gardentasuna nabarmena izan da kontu hauetan. Aipatu bezala urrian hasi zen udal gobernu taldea hondartzako toldoei irtenbidea eman nahirik negoziaketa prozesuan, eta aurten udala izango da zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartuko duena toldoak erosi eta behar bezalako zerbitzua bermatzeko aurrera eraman beharreko kontratazioak eginda.

Sorosleei dagokienez, berriz, Foru Aldundiak sorosleen kudeaketa bere gain hartuko ote zuen zain egon gara azken unera arte, eta hau horrela izango ez zela ikusita, maiatzean atera zen hondartzen sorospen zerbitzuaren esleipena jendaurrera, udako denboraldia hasteko nahikoa denborarekin, eta aurreko urteetan gertatu bezala, aurten ere ez zen zerbitzu hau emateko inor aurkeztu. Udalak edozein preziotan zerbitzua atera ordez (aurreko urtean egin bezala), beste aukera batzuk aztertzeari ekin zion eta egon zitezkeen irtenbideak baloratu eta berme guztiak eskainita merkeagoa izan zitezkeen aukeraren alde egin du. Honek aurreko urtean sorosle lanetan aritu zirenekin negoziatu eta haien bitartez zerbitzua ematera eraman gaitu eta gauzak behar bezala egiteko beharrezko prozedura administratiboek astebeteko atzerapena suposatu dute hondartzen denboraldiaren hasieran. Aurten iaz baino 36.000€ merkeagoa izango da sorospen zerbitzua, udal gobernuaren negoziatzeko gaitasunaren adierazle.

Gipuzkoako kostaldeko herrietako alkateek egindako adierazpenaren aurrean Debako Udalak bere jarrera adierazi ez izana ere deitoratu du EH Bildu taldeak. Kostaldeko herrietako alkateek baino, EH Bilduk alkatetza duen herrietako alkateek egindako adierazpenak dira aipatutakoak.



DEBAKO UDALA

2024SPLE0008

8.bilera: OHIKOA 2024/06/27

Honen aurrean ere argi utzi nahi dugu Debako Udalak behin baino gehiagotan adierazi duela sorospen zerbitzuak herriari sortzen dion diru xahuketari irtenbidea eman beharraren aldeko iritzia, eta ongi baino hobeto daki Debako Eh Bilduko taldeko bozeramaleak Alkatea adierazpen hori egin duten herrietako alkateekin harremanetan jarri dela alderdikeriak alde batera utzi eta elkarrekin adierazpen bateratuak egitearen aldeko jarrera adierazteko.

Udal gobernua erabateko gardentasun eta seriotasunez dihardu lanean urte honetan guztian zehar. Informazioa behar den unean eta behar beste ematen zaio oposizioko taldeari, eta udal gobernu osatzen dugun kideetako bakoitzak erabateko seriotasun eta konpromezuarekin erantzuten dio udal honetan duen ardurari. Ez dugu, beraz, inolaz ere onartuko gure betebeharrak betetzen ez ditugula inork esatea, eta are gutxiago gure eginkizunak alde batera utzi eta beste zeregin batzuetan aritzen garela, dagokigun erantzukizuna beste batzuen bizkarrean utzita.

Udal gobernua berretsi nahi du Debarekin eta debarrekin orain urte bete hartutako konpromezua eta herriari emandako hitza.»

Besterik ez zegoenez, 19:40tan alkateak amaitutzat eman zuen Osoko Bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

